

Euskal AEko ondasun esportazioak %16,3 gehitu ziren eta inportazioak %9,7 2018ko urtarrilean

Motordun ibilgailuak eta haien osagarriak, Siderurgia eta Petrolio fintzea lider esportazioetan

Euskal AEko **ondasun esportazioak** %16,3 gehitu ziren 2018ko urtarrilean urte artean, Eustaten arabera. Guztira, 2.064 milioi; aurreko urteko aldi berean 1.775. Ondasun energetikoen esportazioak %19,2 gehitu urte artean; ez-energetikoenak %16,0.

Arabak gehitu gehien esportazioak, %25,9; produktu ez-energetikoen tasarekin bat. Esportazioak %11,9 gehitu Gipuzkoan; ez-energetikoak %12,1. Bi lurraldeotan esportazio energetikoak ezdeusak dira.

Bizkaiko esportazioak %12,2 gehitu urte artean; energetikoak %19,9, ez-energetikoak %9,5. Bizkaian esportazio energetikoak guztien %27,6 dira.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2018, urtarrila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2017	2018	Δ %	2017	2018	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	1.774.822	2.064.082	16,3	1.592.259	1.746.201	9,7
PRODUKTU ENERGETIKOAK	188.079	224.140	19,2	582.266	594.918	2,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.586.743	1.839.941	16,0	1.009.992	1.151.282	14,0
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	544.111	684.865	25,9	275.852	368.338	33,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	124	91	-26,7	293	397	35,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	543.987	684.774	25,9	275.559	367.941	33,5
BIZKAIA						
GUZTIRA	722.083	810.175	12,2	1.023.666	1.064.741	4,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	186.495	223.616	19,9	581.645	593.826	2,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	535.588	586.559	9,5	442.021	470.915	6,5
GIPUZKOA						
GUZTIRA	508.628	569.042	11,9	292.740	313.122	7,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.460	433	-70,3	328	695	111,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	507.168	568.609	12,1	292.412	312.427	6,8

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)


Euskal AEko **ondasun-inportazioak** %9,7 gehitu, 1.746 milioira. Inportazio energetikoak %2,2 gehitu; ez-energetikoak %14,0.

Arabian berriz ere hazkunderik handiena, %33,5. Inportazioak %7,0 gehitu, guztira, Gipuzkoan. Bizkaiko inportazioak %4,0 gehitu urte artean; ez-energetikoak %6,5, %2,1 energetikoak. Bizkaiak egiten ditu Euskal AEko inportazio energetiko ia guztiak, eta lurraldeko inportazio guztien %55,8 dira.

Esportazio bolumen handiena, hil honetan, guztien %29,5, Motordun ibilgailuen fabrikazioa, zeina hazten baita %43,1. Garrantzian bigarren (guztien %10,9), Siderurgia (%+23,9); hirugarren (guztien %8,9) Kokeriak eta petrolioak fintzea (%+48,7). Erabilera orokorrerako makineria guztien %8,4 da eta %9,4 hazi da; Metalezko artikulak %8,3 izan eta %23,3 hazi.

5-10 pertsonako turismoak, Salgaiak garraiatzeko ibilgailuak, Ibilgailuen zati eta osagarriak, eta Petrolio olioak, hauen guztien esportazioak urtarileko guztien %36,2 dira, eta balioa 747,6 milioi.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Milioi euro)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Hamaika jarduera-adar garrantzitsuetan hazkundeak. Rankinean aurrena, Erauzketa industriak eta petrolioarenak (guztien %32,0), zeina %7,9 hazi baita.

2018ko urtarilean, urte arteko esportazio hazkunde handienak: Alemaniara (341,9 milioi, %+29,1); Frantziara (297,6 milioi); Estatu Batuetara (163,4 milioi, %+67,6).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Orrialdea: 2 (2)